

OGP EUSKADI - FORO ERREGULARRAREN BILERA	
2023/04/18	
6. aretoa, Lakua II, Eusko Jaurlaritza (Donostia 1, Gasteiz)	

Gai-zerrenda	<ul style="list-style-type: none"> • Agurra eta ongietorria • Lider bakoitzak OGP Euskadiren 2021-2024rako Planaren 5 konpromisoen gauzatze maila erreparatu du. • Foro Erregularrean dauden herritarren ordezkarietako kideek eskaera egin dute – komunikazioa • Gobernu Irekirako Nazioarteko Aliantzan egindako harremani eta ekitaldiei buruzko informazioa • Eskariak eta galderak
Iraupena	12:00etatik 14:15era

Erakundea	Pertsona	Aurkeztuta
Eusko Jaurlaritza	Miren Martiarena. Gobernu Irekiko zuzendaria	Bai
Eusko Jaurlaritza	Matxalen Lauzirika. Herritarren Arretako eta Zerbitzu Digitaletako zuzendaria	Bai
Arabako Foru Aldundia		Ez
Bizkaiko Foru Aldundia	María Presa	Bai
Gipuzkoako Foru Aldundia	Goizeder Manotas. Zerbitzuen eta Berrikuntzen eta Administrazioaren Eraldaketaren zuzendari nagusia	Bai
Gipuzkoako Foru Aldundia	Haritz Ugarte. Berrikuntzaren eta Administrazioaren Eraldaketaren zerbitzu burua	Bai
Gipuzkoako Foru Aldundia	Mikel Pagola. Herritarren Parte Hartzeko zuzendari nagusia	Bai
Gipuzkoako Foru Aldundia	Itziar Calvo. Herritarren Parte Hartzeko zerbitzu burua	Bai
Bilboko Udala	Amagoia Ibarondo. Kalitatearen eta Ebaluazioaren zuzendaria	Bai
Donostiako Udala	Manu Narváez. Presidentetzako zuzendaria	Bai
Gasteizko Udala	Jose Luis Pérez, Kotelo. Parte Hartze eta Gardentasun Saileko zuzendaria	Bai
Innobasque	Gotzon Bernaola	Bai
Bilboko Emakumeen Batzordea	Arantza Otaolea	Bai
Sareen Sarea	Elena Blanco	Bai
Euskadiko Gazteriaren Kontseilua	Iratxe Uriarte	Bai (online)
Ibatuz	Antxon Gallego	Bai (online)
UNICEF Euskadi	Elsa Fuente	Ezin etorria adierazi du
Eusko Ikaskuntza	Beatriz Akizu	Ezin etorria adierazi du
Mestiza Elkartea	Ana Molina	Ez
Osoigo	Eneko Agirre	Ezin etorria adierazi du
Arabako Kontzejuen Elkartea	Joseba Terreros	Ez
Idazkari Teknikoa	Koldobike Uriarte. Proiektuaren arduradun teknikoa. Eusko Jaurlaritza Ignacio Sanz. EDE Fundazioa	

1. Agurra eta ongietorria

Miren Martiarenak ongietorria egin du eta Matxalen Lauzirika aurkeztu du, Herritarren Arretako eta Zerbitzu Digitaletako zuzendari berria, Javier Bikandiren orde; eta Iratxe Uriarte Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko presidentea, Maialen Olaberen orde.

Halaber, bileraren gai-zerrenda azaldu du eta konpromisoak gidatzen dituzten erakundeei eman die hitza, haien aurrerapausoak aurkezteko.

2. Lider bakoitzak OGP Euskadiren 2021-2024rako Planaren 5 konpromisoen gauzatze maila errepasatu du.

1. konpromisoa: COVID-19aren behatokia hirian eta zerbitzuak herritarrei egokitzea

Manu Narváezek, Donostiako Udaletik, lan egiteko garaian izandako zailtasunak azaldu ditu eta aipatu du proiektuaren hasierako helburua COVIDak gizartean zer nolako eragina zuen azaltzea zen arren, denborarekin helburua birdefinitzen joan direla.

Besteekin alderatuta konpromiso hori desberdin egiten duen bigarren elementua da alderdi teknikoa oso nabarmena dela: adierazleen multzoa egin dute, diagnostikoa lortu... Hori eragozpena izan da foroan gizarte zibilarekin lantzerako garaian.

Bi arrazoi horiek direla eta, konpromiso honen lan-prozesuak sorkuntza partekatua eta elkarrekiko parte-hartzea du.

2022ko azaroaren 18an egindako foro irekian, erresilientziaren aginte-koadroen lehen proposamena aurkeztu zuten. Bertan, 65 adierazle jasotzen ziren errealitate soziala aztertzeko.

Adierazle horietatik zein jaso daitezkeen ikusteko azterketa egin ondoren, 19 hautatu dituzte. Hautatutako batzuk baztertu egin dituzte hasiera batean, iturriak dauden arren, informazioa biltzea zaila izango dela ikusi dutelako. Gehitutako datuen artean egongo lirateke, esaterako, zahartze-indizea, atzerriko herritarren ehuneko edo ikasketen maila. Desberdintasun mailen moduko datuak zailagoak dira biltzen; hortaz, aginte-koadrotik kanpo geratuko lirateke.

Halaber, arazoak izan dira erakundeek COVIDaren ondorioak arintzeko asmoz abian jarritako proiektuak aztertzeko aurreikuspena betetzeko. Arazoa da jarduketa gehienak Next Generation funtsek finantzaturako proiektuen bidez ezartzen ari direla, eta oraindik abian daude proiektu horiek eta ez dituzte amaitu. Horrek esan nahi du zaila izango dela mugarri hori betetzea.

Konpromisoan parte hartu duten pertsonekin bilera bat egitea da asmoa, informatzeko eta egiten ari direna kontrastatzeko.

2. konpromisoa: Aurrekontuen arloko gardentasunerako eta kontuak emateko tresna

Aurkezpena Gipuzkoako Foru Aldundiko Goizeder Manotasek eta Haritz Ugartek egin dute.

Aurkezpenarekin hasteko, orain arte egindakoaren berri eman dute, eta horren barruan nabarmentzekoa da EAEko eta nazioarteko tresnekin egindako alderaketa, jarduketa egokiak

identifikatzeko, bereziki, herritarrekin egindako focus groupak. Lan horren ondorioz, proposamen bat egin dute konpromiso taldeak aurrekontuak irudikatzeko duen moduarekin.

Martxoan, Laneko Taldeak bilera egin du tresna informatikoak jaso beharrekoaren diseinu kontzeptual eta funtzionala ezartzeko, non kokatuko den zehazteko eta informazio hori egingo duen enpresari helarazi ahal izateko.

Webgunea proiektatu dute, Foru Erregularreko kideek nolakoa izango den ikusteko. Helburua da herritar guztientzako webgune librea sortzea, erabiltzeko erraza eta orientazio pedagogikoarekin egina, bertara sartzen denak uler dezan aurrekontuak nola egiten diren, horiek gardenak izan daitezen, etab.

Webguneak bilatzailea izango du goialdean eta menua ezkerrean. Menuak bost modulu izango ditu: aurrekontua zer den ulertzeko informazioa; Euskadiko administrazio publikoen aurrekontuen bilatzailea; intereseko proiektuen aurrekontuen bilatzailea (kolektibo hartzaileen arabera, proiektu zehatzen arabera...); gai horrekin lotutako albisteak; eta herritarrentzako parte hartzeko bidea (jendea harremanetan jar dadin, azalpenak eskatzeko...).

Identifikatu duten arazoetako bat da erakunde publiko guztiek ez dituztela aurrekontuak orrialde horretan argitaratzeko moduan prestatuta.

Aurkezpenetik sortu diren ideia batzuk dira hauek:

- OGPren proiektu estrategikoak identifikatzea, aurrekontuak espazio horretan argitaratu ahal izateko.
- Administrazio publikoen aurrekontuak GJHein eta 2030eko agendaren adierazleekin lotzeko modua bilatzea.
- Gehitu estekak administrazio publikoetako prozesu parte-hartzaileetan.

Idea da datozen hilabeteetan tresna hau sortzea. Egun, garatuko duen enpresaren kontratazioa lizitatzeko fasean daude.

3. konpromisoa: Open Eskola: herritarrak garatzea eta indartzea

GFAko Mikel Pagola eta Itziar Calvok egin dute aurkezpena.

Lehenik eta behin, adierazi dute konpromiso honetan egindako lana ez dela lehen planean egindako lanaren jarraipena, baizik eta hiru lerro garatu dituztela. 2022an, arrakala digitalaren inguruan lan egitea erabaki zuten eta 2023an, etika publikoaren gaia jorratzea.

2022an zehar, arrakala digitalaren gaia jorratu dute, eta arlo horretan erakundeek ahalik eta arrakala gutxien sortzea izan da lehentasuna. Lehengo urratsa erreferentzia edo inspirazio gisa balio dezaketen esperientzien mapaketa egitea da, esperientziaren aplikagarritasuna ere aztertuz. Prozesu horretan, halaber, arrakala digitalean eragiten duten faktoreak identifikatu dituzte: adina, sexua, bizilekua...

Identifikatutako premisen artean, hauek nabarmendu behar dira: gizarte osoari zuzenduta dauden zerbitzuak; askotan, arrakala digitalean eragina duten faktoreek elkarreragina dute besteekin; bide asko izateko eskubidea bermatzeko beharra, ez digitalizaziorako eskubidea; eta

askotariko profilak dituzten herritarrak biztanleriari zuzendutako zerbitzu digitalen sorkuntzan sartzea.

Lan horren emaitza gisa, gida bat egiteko garaian kontuan izan beharreko erronkak, beharrak, hartzailak, prozesuak eta abar identifikatu dituzte. Gida 2023ko bi proiektu pilotutan probatuko dute: lehenengoa GFarena, eta bigarrena, Gasteizko Udalarena. Test horien ondorioak aztertu ondoren, Bilboko Udalarekin kontrastatuko da, erakunde horretan arlo honetan egiten ari diren lanaren emaitzekin bat egiten ote duen ikusteko.

Bestalde, 2023an, etika publikoaren gaia lantzen hasi dira. Lan-ildo horretan kanpoko laguntza dute: gaian aditua den Begoña Romanena eta EHUko lantalde batena.

Gasteizko Udalak alde horretatik dagoeneko lan bat egin duela aprobetxatuz, esperientzia hori hartu dute erreferentzia edo erredutzat, arreta erakundean jartzen baitu.

Kotelok Gasteizko Udalak bere kode etikoa egiteko prozesuan izandako esperientziaz hitz egin du. Sentsibilizazio-saioekin hasi ziren, jakinik erakundearen balioak identifikatzeko kode etikoa egiteko parte-hartze handia behar zela. Prozesu luzea eta bide askokoa izan zen, eta 450 pertsonak hartu zuten parte bertan. Bost balio definitu izana izan da emaitza, eta hainbat bideren bitartez zabaldu dituzte.

4. konpromisoa: Euskadiko lege/arau/araubide ekimen herrikoientzat proposamenen eta atxikipenen bilketa sustatzeko tresna

Eusko Jaurlaritzako Koldobike Uriartek lege-arau-araubide ekimen herrikoientzat proposamenak jasotzeko plataformaren diseinuaren egoeraren berri eman du.

Jakinarazi du zati bat dagoeneko eraikita dagoela eta konpromiso-taldearekin egiaztatu dutela. Horretarako, elkar sorkuntzarako lan-saioak egin ziren konpromiso-taldearekin, eta adituekin, nazioarteko eta estatuko esperientziak ezagutzeko; eta EAEko ekimen herrikoietan parte hartu duten erabiltzaileekin, erabiliko duten pertsonen ikuspegia txertatzeko.

Lan honetan, interes berezia izan dute arlo honetan ekimenak garatzen ahalegindu diren pertsonak edo kolektiboak izan dituzten zailtasunak identifikatzeko, eta, horretarako, "minaren puntuak" izenekoak identifikatu nahi izan dituzte, etorkizunean ekiditeko edo tresna hau diseinatzeko garaian erantzun bat emateko.

Zailtasunen eta beharren diagnostikoa egin ondoren, irtenbideetan jardun dute: webgune bat sortu dute bokazio informatiko eta praktikoarekin, ekimenei buruzko informazioa emateko, arautzen dituen araudia, aurkezteko moduari buruzko gida, egin beharreko urratsak, etab. Webguneak abian dauden araudiei buruzko bilatzailea du.

Aldi berean, orrialdeaz arduratzen den talde teknologikoarekin batera jardun dute. Hala, aurrerapausoak egiten ari dira edukien diseinuan eta diseinu grafikoan. Halaber, izena jarri diote dagoeneko webguneari: ArauEkimenak Euskadin. Webgunea prest dago argitaratzeko, baina pentsatu dute egokiagoa dela udal- eta foru-hauteskundeak izan ondoren aurkeztea.

Nolakoa izatea nahi duten dagoeneko pentsatu duten arren, hurrengo faserako utzi dute abian jarri daitezkeen ekimen bakoitzeko minisiteak garatzea. Minisite bakoitzak ekimenari buruzko informazioa, talde eragileari buruzkoa, albisteak, ekitaldiak eta abar izan ditzake. Helburua da sortzeko eta elikatzeko errazak izatea sustatzaileentzat, hau da, ekimenaren talde sustatzaileen interesen arabera auto-konfiguratzeko modukoak izatea. Ideia horrekin proba bat egingo dute kanpoko pertsonekin, jakiteko zer neurritan diren erabilgarriak eta erabiltzeko errazak.

Azkenik, hurrengo fase batean, abian jar daitezkeen ekimenei laguntzeko zerbitzuak sortzea dago aurreikusita.

5. konpromisoa: ALTXOR: Adineko pertsonen bizi-proiektuentzako informazio, orientazioa, bitartekaritza eta laguntza eskaintzeko online zerbitzua eta bulego pilotu erdipresentzialak

Innobasqueko Gotzon Bernaolak Altxor proiektuaren egoeraren berri eman du. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Sailak eta EABk (Euskadiko Adinekoen Batzordea) gidatzen dute proiektua.

2021ean eta 2022an zehar, konpromiso-taldea aldizka bildu eta aritu da lanean, eta aurrera egin du beharrak eta balizko mugak identifikatzeko diagnostikoa egiteko.

Egindako lan horretan oinarrituta diseinatu du zerbitzu digitala, baina oraindik ez du sarbide publikorik, eta EABrekin kontrastatu dute frogatzeko, erabiltzeko erraza ote den ikusteko eta balizko hobekuntzak hautemateko. Egun, plataformaren mantentze-lanen lizitazioan ari dira lanean.

Gai horri dagokionez, lizitazioa zenbat denborako den galdetu dute. Ez dakite, baina kontsultatuko du. Halaber, galdetu dute tresna digitala noiz aurkeztuko duten. Oraindik ez dago erabat amaituta, beraz ez dute erabaki.

Hiru hiriburuetak bulego presentzialei dagokienez, profesionalak eta boluntarioak izango dituzte adinekoak artatzeko, eta jakinarazi dute aldaketak izan direla egin nahi zutenarekin alderatuta. Hasierako ideia zen udal bakoitzarekin hitzarmen bat egitea zerbitzua eskaintzeko, hiri bakoitzean modu batera, baina Errekuperaziorako eta Erresilientziarako Mekanismoaren (EEM) fiskalizazio-neurriek eta funtsen baldintzek ez dute uzten diseinatutako eredu pilotua garatzen. Esaterako, elkarre batekin hitzarmenak sinatzeak edo dagoeneko abian dauden proiektuekin inbertsioak eta gastuak optimizatzeko sinergiak sortzeak ez dituzte funtsak jasotzeko baldintzak betetzen.

Lizitazio bat aterako da 3 hiriburuetan zerbitzuak kontratatzeko. 2 milioi euro baino gehiagoko balioa izango du. Udaren ostean lizitazioak ebatzita izatea da ideia.

Zerbitzu presentzialaren lizitazioa berriro egin behar izan da.

- Proiektua aurrera atera ahal izateko, zerbitzu presentziala lehiaketa bakarrean ateratzea erabaki dute.
- Berriro diseinatu behar izan da osorik: lizitazioak zerbitzua eskaintzeaz gain, ekipamendua ere barne hartuko du: espazioaren alokairua, altzariak, hornikuntzak, etab.

- Helburua da urte amaierarako lizitatuta izatea, baina, praktikan, 10 hilabete galdu dituzte.

3. Foro Erregularrean dauden herritarren ordezkartzako kideek eskaera egin dute – komunikazioa

Komunikazioa

Bilera honen aurretik, herritarren ordezkariak helarazi zuten gizarte zibilari zuzendutako estrategia edo komunikazio-plana baloratzeko beharra zegoela, OGP proiektua eta bertan egiten ari ziren lana ezagutarazteko mekanismo eta formatu irisgarrien bitartez, eta egungo webgunearen bestelakoak direnen bitartez. Ulertzen dute biltegi gisa ikusi behar dela.

Eskari horri erantzunez, Gobernu Irekiko zuzendariak sortzen diren eduki guztiak (bideoak, aurkezpenak, podcastak...) OGPren webgunean jartzeko eta konpromiso bakoitzaren egoeraren eta bilakaeraren bideoa egiteko proposamena helarazi du. Helburua da proiektuan parte hartzen dutenei tresnak eskaintzea, bakoitzak hedatu ahal izateko.

Ildo beretik, Koldobike Uriartek azaldu du 2025ean plana amaitzen denean, lortutako emaitzak hedatzea aurreikusita dutela, xehetasunak emateko, hala nola nor hartu duen parte, administrazioen artean elkarrekin lan egiteko modua, biztanleria eta adituak, etab.

Gobernu Irekiko Zuzendaritzaren iritziz, ez da komunikazio-plan handi bat egiteko garaia, baina bai arlo horretan lan egiteko garaia, webgunean espazio bat sortuz biltegi gisa funtzionatzeko eta foro erregularreko kideek erabil ditzaketen edukiak jarri ahal izateko.

Gizarte zibileko kideek Foro Erregularren funtzionamenduaren eta beste gai batzuen gainean dituzten jarrerak

Komunikazioari lotutako gai honen ostean, Arantza Otaolea Foro Erregularreko presidentetzako kideak hartu du hitza, eta abenduan eta apirilean egindako Foro Erregularreko gizarteko zibileko ordezkarien bileretan ateratako iritziak jakinarazi ditu.

Lehenik eta behin, adierazi du 2021-2024ko bigarren ekintza-plan honetan, Foro erregularren bilerak ez direla hain ohikoak lehen aldiarekin alderatuta, eta gizarte zibilaren parte-hartzea ere txikiagoa dela.

Foro Erregularren bilerak maizago egitea eskatu du eta bileren egutegi bat izatea elkarrekin denborarekin antola daitezen, eta, hala, bertan izatea eta bileretan kalitatezko parte-hartzea izatea berma dadin.

Gobernu Irekiaren Zuzendaritzak komunikazioaren gaiaren gainean egindako proposamenari dagokionez, Arantza Otaoleak azaldu du eskariarekin gizarte zibileko kideek herritarrei ezagutarazi nahi zietela OGP zer den, eta proiektuetako eragileen artean lankidetzat dagoela; ez zen asmoa konpromiso bakoitzaren informazio xehea ematea. Alde horretatik, esan du ulertzen dutela webguneak biltegi-funtzioa duela edo izan behar duela.

Bestalde, bigarren planaren ebaluazioari buruz galdetu du, eta adierazi du lehenengoa kanpotik ebaluatu zutela, eta horrek presio handiagoa eragiten duela parte-hartzearen moduko alderdi batzuk zaintzeari dagokionez.

Koldobike Uriartek erantzun du ziurrenik kanpoko bitartekoekin egingo den ex post ebaluazioaz gain, OGPren aurrean aurkeztutako Planean aurreikusita zegoena zela plana gauzatzeko prozesuaren erdialdean tarteko ebaluazioa egitea, kanpoko bitartekorik erabili gabe. Horretarako, informazioa biltzeko fitxa bat egingo da eta konpromiso bakoitzeko liderrek bete beharko dute aurrerapenei buruz, mugarrak betetzeari buruz, jarraitutako prozesuari buruz eta hobetzeko proposamenei buruz. Halaber, balorazio-galdetegi bat bete beharko dute Foro Erregularreko kide guztiek. Tarteko ebaluazio-prozesu hori uda aurretik egingo litzateke, ekainean edo uztailean, eta hurrengo Foro Erregularraren bileran eztabaidatuko litzateke, irailean edo urrian.

Aurretik esan dugunaren ildotik, Arantza Otaoleak azaldu du Foro Erregularrean parte hartzen duten erakunde guztiek ez dutela konpromisoen lantalde guztietan parte hartzen. Hortaz, ez dute horien gaineko informaziorik Foro Erregularrean edo Foro Irekian azaltzen duten arte.

Gai horrentzako irtenbide gisa, Gobernu Irekiaren zuzendariak planteatu du lantzen ari diren eguneraketan buletina egin eta bidal daitekeela.

Eusko Jaurlaritzatik aukera baliatu dute jakinarazteko hurrengo Foro erregularra urrian izango dela, udaletan eta aldundietan izango diren aldaketen ondorioz, maiatzaren 28ko hauteskundeak direla eta.

Halaber, Koldobike Uriartek proposatu du konpromisoen lantaldeetako arduradunak Foro Erregularreko sozietate zibileko ordezkarien bileretara joan daitezela, informazioa emateko, hala eskatzen zaienean.

Arantza Otaoleak esan du Foro Erregularreko gizarte zibileko kideek gainerako herritarren informazio berbera dutela, webgunearen bitartez eskuratu daitekeena hain zuzen, eta, gainera, kasu askotan ez dagoela eguneratuta.

Herritarren Arretako eta Zerbitzu Digitaletako zuzendariak proposatu du bilerak maizago egitea eta informalak izatea, online, berrikuntzen berri emateko. Konpromiso talde bakoitzaren bilerak izan daitezke.

Koldobike Uriartek proposatu du aukera bat izan daitekeela gizarte zibileko kideei gakoak ematea konpromiso talde bakoitza lan egiten ari denaren gaineko informaziorako sarbidea izan dezaten.

4. Gobernu Irekirako Nazioarteko Aliantzan egindako harremanei eta ekitaldiei buruzko informazioa

Miren Martiarenak izandako harreman batzuen edo nazioartean egindako ekitaldi batzuen berri eman du:

- Iberoamerikako tokiko OGPen bilera, otsailaren 9an
- OGPren munduko goi bilera dago aurreikusita irailaren 6tik 7rako Tallinnen, Estonian.

Foro Erregularreko kideek parte hartu duten komunikazio-ekintza batzuen berri ere eman dute:

- [Gobernu Irekiaren Aurpegiak](#) Arantza Otaolea eta Mikel Barturen elkarrizketatu ditu, sarrera bat argitaratzeko.
- [Open Data Euskadiri buruzko historia bat](#) argitaratu dute.
- [Miren Martiarena eta Gotzon Bernaolari elkarrizketa egin diete](#), “Bizilagun guztiak lankidetzan aritzean, emaitzak hobeak dira” izenpean.

5. Eskariak eta galderak

Nazioarteko OGPK bere garaian Euskadi OGPrekiko, erakundeen arteko 3 mailako planekiko edo Open Eskola gisako proiektuekiko interesa adierazi zuenez, Gotzon Bernaolak galdetu du ea egun zer interes duten OGP Euskadirentzat sari edo aitortzaren bat eskuratzeko bidean lan egiteko edo nazioarteko ekitaldiren batean presentzia izateko.

Foro Erregularrarentzat interesgarria da proposamena, eta modu positiboan baloratu du halako ekimenetan parte hartzea.